

Elikadura osasungarriaren aldeko konpromisoa

EROSKI-K ETIKETA BERRI BAT PROPOSATUKO DIE BAZKIDEEI, PRODUKTUAK NUTRIZIOAREN KALITATE ALDETIK SAILKATZEKO

- Kooperatibak prozesu parte hartzaile bat abiatu du Bezero Bazkideekin, Nutri-Scoreren etiketa eredu onartzeko eta EROSKIren markako produktuetan ipintzeko, bere semaforo nutrizionalaren ondoan
- Europako Batasunak balioztatua du Nutri-Score etiketa, eta Osasunaren Mundu Erakundearen babesa du
- Bost mailatan sailkatuko lituzke produktuak, kolorezko hizkiekin adieraziak (A berdez margotutik hasi eta E gorrira); horretarako, kaloriak, mantenugaiak eta osagaiak kalkulatzeko dira
- Bezero Bazkideek ekimen hau babesten badute, etiketa berri hauek urte amaieran agertuko dira EROSKIren dendetako ontzietan

Elorrio, 2018ko irailaren 14a.- [EROSKI](#) ari da pausoak ematen kontsumitzaileari informazio argia eta gardena emateko konpromisoan, eta Bezero Bazkideei ekimen bat proposatu die, bere markako produktuen etiketak nutrizio aldetik informazioa hobea izan dezan. Kontua da EROSKIren oraingo semaforo nutrizionalarekin batera bere markako ontzi guztietan produktuaren sailkapen orokor bat ematea nutrizioaren kalitateaz denaz bezainbatean, bost mailatako eskala batean, bakoitza hizki batez eta kolore batez adierazia (A berdetik E gorrira). Sailkapen horri Nutri-Score esaten zaio, eta produktu baten 100 gramotan dauden kaloriak neurtzen ditu eta horrekin batera osasunerako onak izan daitezkeen mantenugaiak (zuntza, proteina eta fruitu, barazki, fruitu lehor eta lekale kopuruak), eta zein mantenugai komeni den murriztea (gantz saturatuak, gatza eta azukreak).

"Gure Bezero Bazkideei Nutri-Scoreren etiketa proposatu diegu gure markako produktuetarako, zeren eta gaur egun nazioarteko komunitate teknikoak eta zientifikoak horri ematen dio bermerik handiena nutrizioaren gaineko informazioa emateko orduan, eta emaitzarik onenak ematen ditu kontsumitzaileari erabaki osasungarriak errazago hartzeko orduan", esan du EROSKIko Osasun eta Iraunkortasun arloko zuzendariak, Alejandro Martinez Berriochoak.

Janari zientzien arloko akademikoek sortua da Nutri-Score eredu, eta Europako Batasunak balioztatua dago; gainera, Osasunaren Mundu Erakundeak orain berriki eman dio bere onarpena. Kooperatibak ekimen hau proposatu die Bezero Bazkideei, aurretik nutrizio arloko zenbait etiketa eredu aztertu ondoren; azterketa hori EROSKIren Batzorde Zientifikoak gauzatu du, eta osasunaren, elikaduraren eta

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

kontsumoaren arloko adituen aholkuak izan ditu. "*Hauxe da osagarri onena gaur egun gure ontzietan den semaforo nutrizionalaren ondoan ipintzeko. Hala, kontsumitzaileak erraz ikus dezake nutrizio aldetik nolako balorazioa duen produktu bakoitzak, eta antzekoak diren beste batzuekin konparatuz onena aukeratu, semaforo nutrizionalak ematen duen informazioaren xehetasunik galdu gabe, izan ere, kontsumitzaileek oso iritzi hona baitute hartaz, esan du Martinez Berriochoak.*

Bezero Bazkideen iritzia

Kooperatiba aste honetan hasiko da parte hartze kanpaina bat egiten milaka Bezero Bazkiderekin, elikagaiak etiketatzeko sistema berri hau ezagutarazteko. "*Elikagaiak nutrizio aldetik duten kalitatea modu gardenean erakustea funtsezkoa da kontsumitzailearentzat, eta hori bera da gure [Osasunaren eta Iraunkortasunaren alde hartuak ditugun konpromisoetako bat](#). Kontsumitzaileekin berretsi nahi dugu proposamen honekin nabarmen hobetuko dela etiketa, hau da, osoagoa, erabilgarriagoa eta ulergarriagoa egingo duela eta halaber dieta osasungarri bat prestatzeko orduan lagungarria izango dela. Partaidetza kopuru handia espero dugu, ikusirik osasunak nolako garrantzia duen kontsumitzailearen erabakietan", azaldu du Martinez Berriochoak.*

EROSKIren markako elikagai produktu guztietan etiketa eredu berria ipintzen badugu, goitik behera aldatuko ditu Espainiako elikadura sektoreko estandarrak. Kooperatibaren Bezero Bazkideek ekimen hau babesten badute, asmoa da lehen etiketa berria duten lehen ontziak urte amaierarako iristea EROSKIren dendetara.

EROSKI, aurrendaria nutrizio arloko etiketa garatu bat ateratzen

EROSKI aurrendaria izan zen 2007an, semaforo nutrizionala ipini baitzuen bere produktuen ontzietan. Aurrerapen handia ekarri zuen bere garaian, eta gaur egun bere markako artikulua guztietan da. Haren bitartez, kontsumitzaileek begi kolpe batean ikus dezakete zenbat kaloria, azukre, gantz, gantz saturatu eta gatz dakarren produktu baten errazio batek hura kontsumitzean, baita egunean kontsumitu beharrekoen ehunekoak ere, hiru koloreekin, berdea, horia eta laranja; bere izenak dioen gisan, semaforoek bezala.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)